
ARTFUTURA
XXI
ETORKIZUNA BERRAZTERTZEN
REPASANDO EL FUTURO
14/07/11 - 01/09/11
ERAKUSKETA ARETOA SALA DE EXPOSICIONES
PLANTA -2 SOLAIRUA
ASTELEHENETIK IGANDERA DE LUNES A DOMINGO: 11.00 - 21.00 h
PREZIOA PRECIO: 3€ / 2€
SARRERAK ENTRADAS: TICKET BOX / INFOPUNTUA
Alhóndiga Bilbao
BBVA
DOLLFACE – ANDREW HUANG

# ARTFUTURA XXI

'ArtFutura XXI. Etorkizuna berraztertzen' ekimenak jaialdi horren historiaren ibilbidea aurkeztuko du AlhóndigaBilbaon. Jaialdia duela 21 urtetik ospatzen da, eta teknologia berriei lotutako artearen etorkizuna aurreratzen du. 1990. urtean abian jarri zenetik, ArtFutura sormen digitalaren aurrerapenen berri izateko ereduzko jaialdi bihurtu da, izan ere, artearekin eta teknologia berriekin lotutako sortzaile, artista eta pentsalari garrantzitsuenak biltzen ditu. Era berean, ezinbesteko foro bilakatu da, besteak beste, Errealitate Birtualari, Bizitza Artifizialari eta Sare Informatikoei buruzko fenomenoen gai sozial, kultural eta artistikoen inguruan eztabaidatzeko.

'ArtFutura XXI. Etorkizuna berraztertzen' ekimenak kultura horrek azken bi hamarkada hauetan izandako bilakaeraren inguruan eta XXI. mendean izango duen ibilbidearen inguruan hausnartzeko gonbita egiten digu. Ibilbide hori errealitate birtualetik hasi eta interneten eztandara eta egungo sare sozialen arora arte iristen da. Bide horretan, New mediaren, interakzioko diseinuaren, bideo-jokoen eta animazio digitalaren nazioarteko ikuspegian sortutako proiektu eta ideia garrantzitsuenak aztertu dira.

'ArtFutura XXI. Repasando el futuro' presenta en AlhóndigaBilbao un recorrido por la historia de este festival que desde hace 21 años anticipa el futuro del arte asociado a las nuevas tecnologías. Desde que se pusiera en marcha en 1990, ArtFutura se ha convertido en el festival de referencia para conocer los avances en creatividad digital, reuniendo a los creadores y pensadores más importantes relacionados con el arte y las nuevas tecnologías. Y se ha convertido en un foro esencial dedicado a las implicaciones sociales, culturales y artísticas de fenómenos como la Realidad Virtual, la Vida Artificial y las Redes Informáticas.

'ArtFutura XXI. Repasando el futuro' invita a la reflexión sobre la evolución de esta cultura en las dos últimas décadas y su proyección en el siglo XXI. Un recorrido, desde la realidad virtual a la explosión de internet y la era de las redes sociales, en el que se han explorado los proyectos y las ideas más importantes surgidas en el panorama internacional del new media, el diseño de interacción, los videojuegos y la animación digital.



Digital Domain - James Brown

# JARDUERAK ACTIVIDADES

## 14/07/11 - 21.30 h
## EDWIN VAN DER HEIDE
### LASER ETA SOINU IKUSKIZUNA
### ESPECTÁCULO DE LÁSER Y SONIDO
**KULTUREN ATARIA** ATRIO DE LAS CULTURAS
**Sarrera dohain** Entrada libre



Performance honetan, Edwin van der Heidek audioz kontrolatutako laserrak erabiliko ditu, ikus-entzuleak erabat biltzen dituen eta etengabe ikuspegia aldatzen duen hiru dimentsioko giroa eratzeko. Irudiak eta soinuak denbora errealean ordenagailuz sortutako uhin sinodalen konposizio berean dute jatorria.

En esta performance, Edwin van der Heide utiliza láseres controlados por audio para crear un entorno tridimensional que envuelve completamente al público y que permite un constante cambio de perspectiva. La imagen y el sonido tienen origen en la misma composición de ondas sinodales generadas en tiempo real por ordenador.

## 3/09/11
## IMPROV EVERYWHERE
### BILBAO



Sare sozialekin, sormen mota berri bat agertu zen. Improv Everywhere ekimenak 196.000 lagun baino gehiago ditu Facebooken, eta bertako bideoak 80 milioi alditan baino gehiagotan ikusi dituzte Youtuben. Ekimeneko performance edo broma praktikoak askotarikoak dira: New Yorkeko Grand Central geltokian 200 lagun izoztea, metro geltoki batean gezurrezko inaugurazio bat antolatzea edo parke publikoetan bat-bateko mob barregarriak sortzea. Orain arte 85 'misio' egin dituzte, eta milaka pertsonak hartu dute parte. Oinarrizko araua bete dute: barre egitea, gizarte iruzkin zorrotzak egitea, ondo pasatzea... baina inor iraindu edo makurrarazi gabe.

Improv Everywhere ekimenak flashmob harrigarri eta dibertigarria ekarriko du Bilbora, herritar guztientzat.

Parte hartu nahi baduzu, jarraitu gure webguneko argibideei: www.alhondigabilbao.com.

Con las redes sociales aparece un nuevo tipo de creatividad. Improv Everywhere cuenta con más de 196.000 amigos en Facebook y sus videos han sido vistos en Youtube más de 80 millones de veces. Sus performances o bromas prácticas van desde congelar a 200 personas en la Estación Grand Central de Nueva York, a crear una inauguración ficticia en una estación de metro o generar hilarantes 'mobs' espontáneos en parques públicos. Hasta ahora han realizado 85 'misiones' en las que han participado miles de personas, con una regla básica: Reírse, hacer agudos comentarios sociales, pasarlo bien… pero nunca insultar ni humillar a nadie.

Improv Everywhere llega a Bilbao con una sorprendente y divertida 'flashmob' abierta a toda la ciudadanía.

Si quieres participar, sigue la información en nuestra web www.alhondigabilbao.com

## CATÁLOGO ARTFUTURA XXI KATALOGOA



**PREZIOA** PRECIO: 35 €
**Salgai Shópan**
A la venta en Shópa

ArtFuturaren 21 edizioak katalogoan jasota daude, eta jaialdiaren bilakaera erakusten du, urtez urte. Ibilbide grafiko eta bisual honek teknologiaren eta horrek artearekin daukan loturaren historia berrikusten du, 90eko hamarkadatik egun arte.

Las 21 ediciones de ArtFutura están recogidas en este catálogo que muestra, año a año, la evolución de este festival. Un recorrido gráfico y visual que repasa la historia de la tecnología y su relación con todos los aspectos de la vida desde la década de los 90 hasta nuestros días.

## JAIALDIA FESTIVAL ARTFUTURA 2011
### ETORKIZUNA PARTEKATZEA DA
### EL FUTURO ES COMPARTIR
**URRIA** OCTUBRE

Open filosofia partekatzearen premisan oinarrituta dago, eta proiektu askoren kalitatea hobetzen du. Filosofia horrek duen indarraren adibide argia da Wikipedia. Lankidetzazko proiektu horrek goitik behera aldatu du entziklopedien eta erreferentziazko materialaren mundua.

Topaketak urrian egingo dira AlhóndigaBilbaon, eta esparru guztietan partekatzeak dituen abantailei buruz arituko dira. Makrotik hasita, munduko krisitik ateratzeko aliantza nola egin, adibidez, eta mikrora, interes txikiak partekatzen dituzten Facebook taldeak, esaterako.

La filosofía Open, basada en la premisa de compartir, incrementa la calidad de muchos proyectos. Wikipedia es un buen ejemplo del potencial que tiene esta filosofía. Un proyecto colaborativo abierto que ha revolucionado el mundo de las enciclopedias y el material de referencia.

En estos encuentros que se desarrollarán en octubre en AlhóndigaBilbao se abordarán las ventajas de compartir, a todo tipo de escalas. Desde lo macro, como puede ser una alianza para salir de la crisis global, hasta lo micro, como los grupos de Facebook en los que se comparten pequeños intereses.

**+ INFO www.alhóndigabilbao.com**

## 01. SARREA INTRODUCCIÓN

Erakusketan landuko diren gaien sarrera. Errealitate birtualetik Interneten eta sare sozialen garapeneraino.

Introducción a los temas tratados en la exposición. Desde la realidad virtual al desarrollo de Internet y las redes sociales.

## 02. XXI EDIZIOAK EDICIONES

Arte eta teknologia jaialdiaren 21 edizioen irudiak proiektatuko dituen pantaila.

Pantalla en la que se proyectan imágenes de las 21 ediciones del festival ArtFutura.

## 04. PANTAILAK PANTALLAS

Espazio nagusia: 21 pantaila mugikor erdi garden. Gai hauen inguruko bideoak proiektatuko dira:

- Errealitate birtuala
- Zibermedia
- Buru globala
- Bizitza artifiziala
- Ziberkultura
- Komunitate birtualak
- Robots & Knowbots
- Etorkizunaren etorkizuna
- Bigarren azala
- Aisialdi digitala
- Internet Cyborg gisa
- Arte kolektiboa
- Sarea mihise gisa
- Hitz pintatua
- Errealitate handiagotua

Espacio principal: 21 pantallas flotantes semitransparentes con videos sobre:

- Realidad Virtual
- Cibermedia
- Mente global
- Vida artificial
- Cibercultura
- Comunidades Virtuales
- Robots y Knowbots
- El futuro del futuro
- La segunda piel
- Ocio Digital
- Internet como Cyborg
- Arte Colectivo
- La red como lienzo
- La Palabra Pintada
- Realidad Aumentada









## 03. / 05. ZEN GARDEN SACHIKO KODAMA



Sachiko Kodama japoniarraren lanak ez dauka aurrekaririk praktika garaikidean, ez esparru digitalaren barruan ez kanpoan. Bere lanak erakusten du ikerkuntza zientifikoak artisten adierazpen-hiztegia zabaldu dezakeela. Horrek errealitate fisikoa moldatzeko aukera ematen die artistei, eta ordura arte esparru onirikoan soilik posible ziren irudiak sortu ditzakete.

El trabajo de la japonesa Sachiko Kodama no tiene precedente en las prácticas contemporáneas, tanto dentro como fuera del ámbito digital. Su obra es un ejemplo de cómo la investigación científica puede expandir el vocabulario expresivo de los artistas, lo que les permite modelar la realidad física y crear imágenes hasta ahora sólo posibles en el terreno de la imaginación o de lo onírico.

## 09. IKUS-ENTZUNEZKO PROGRAMA PROGRAMA AUDIOVISUAL

- 8 BITS
- RESTROSPECTIVA SATOSHI TOMIOKA
- IMPROV EVERYWHERE
- THE PIXAR STORY
- 'THE NET'
- WE LIVE IN PUBLIC
- PASION PICTURES+DIGITAL KITCHEN
- ARTFUTURA SHOW
- MAQUINAS Y ALMAS









## ERAKUSKETA ARETOAREN PLANOA
## PLANO DE LA SALA DE EXPOSICIONES




01. SARRERA
02. ART FUTURAKO 21 EDIZIOEN LABURPENA
03. SASCHIKO KODAMAREN ESKULTURA
04. XXI EDIZIOAK PANTAILA
05. SASCHIKO KODAMAREN ESKULTURA
06. PAUL FRIEDLANDERREN ESKULTURA
07. THEO JANSENEN ESKULTURA
08. DOKUMENTAZIO ARETOA
09. DOKUMENTALAK PROIEKTATZEKO ARETOA

01. INTRODUCCIÓN
02. RESUMEN DE LAS 21 EDICIONES DE ARTFUTURA
03. ESCULTURA SASCHIKO KODAMA
04. VIDEOPROYECCIONES EDICIONES ARTFUTURA
05. ESCULTURA SASCHIKO KODAMA
06. ESCULTURA DE PAUL FRIEDLANDER
07. ESCULTURA DE THEO JANSEN
08. SALA DE DOCUMENTACIÓN
09. SALA DE PROYECCIÓN DE DOCUMENTALES






Paul Friedlanderrek bi hamarkada baino gehiago eman ditu mota orotako teknologiak eta prozedurak ikertzen, argia materia moldakor eta malgu bihurtzeko, edozein forma edo bolumen har dezan. Artista ingelesak argiztapena kontrolatzeko informatika-sistemak baliatzen ditu, eskulturen gorpuzgabetasuna eta dinamismoa nabarmentzeko.







## 07. STRANDBEEST THEO JANSEN



Theo Jansen artista holandarraren robot izugarriek hiru esparru hartzen dituzte: ingeniaritza aurreratua, diseinu esperimental iraunkorra eta eskultura zinetikoa. Bere lanak ekarpen handia egin dio arteа, zientzia eta teknologia bateratzeko bideen inguruan azken bi hamarkadetan sortu den eztabaidari. Kulturen Atarian dagoen eskultura 'Strandbeest' sailekoa da.

Las inmensas criaturas robóticas del holandés Theo Jansen se sitúan entre la ingeniería avanzada, el diseño experimental sostenible y la escultura cinética. Su obra es una de las aportaciones más relevantes en las últimas dos décadas al debate sobre las posibles vías de convergencia entre, ciencia, tecnología y arte. La escultura ubicada en el Atrio de las Culturas pertenece a esta misma serie 'Strandbeest'.

## 08. DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN

Jaialdiko edizioen katalogoak eta liburuak, eta AlhóndigaBilbaoko Mediatekako funtsa kontsultatzeko gunea.

Zona de consulta de catálogos y libros de las diferentes ediciones del festival y de fondos de la Mediateka de AlhóndigaBilbao.

## 06. ESKULTURA ZINETIKOAK ESCULTURAS CINÉTICAS PAUL FRIEDLANDER



Paul Friedlander lleva más de dos décadas investigando toda clase de tecnologías y procedimientos para hacer de la luz una materia maleable y flexible que puede adquirir cualquier forma y volumen. El artista inglés aprovecha los sistemas informáticos de control de iluminación para resaltar la impresión de incorporeidad y el dinamismo de sus esculturas.


Antolatzailea Organiza
hó Alhóndiga Bilbao

Babeslea Patrocina
BBVA

Kide teknologikoak Socios tecnológicos
BEEP Soluciones para tu mundo digital
FECYT

**hó TXARTELAK ALHÓNDIGABILBAO UNIBERTSOAREN ATEAK IREKIKO DIZKIZU. BERTAN, ESKAINTZA HANDIA GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUZU (KULTURALA, SOZIALA NAHIZ JARDUERA FISIKOEN ARLOKOA). TXARTELARI ESKER JARDUERA ETA PROGRAMAZIO GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOKO DUZU ALDIAN-ALDIAN, ETA DESKONTU ETA ABANTAILA INTERESGARRIAK BALIATU AHAL IZANGO DITUZU.**
LA TARJETA hó TE ABRE LAS PUERTAS AL UNIVERSO ALHÓNDIGABILBAO, DONDE PODRÁS DISFRUTAR DE UNA AMPLIA OFERTA CULTURAL, SOCIAL Y DE ACTIVIDAD FÍSICA. TE PERMITIRÁ RECIBIR PERIÓDICAMENTE INFORMACIÓN ACERCA DE TODAS LAS ACTIVIDADES Y PROGRAMACIONES ASÍ COMO DISFRUTAR DE INTERESANTES DESCUENTOS Y VENTAJAS.

---

**GURE JARDUERETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZA TEKNIKORIK BEHAR BADUZU ETA BAITA, HOBETO ENTZUN NAHI BADUZU ERE, ESKATU LASAI. GUZTIONTZAKO GUNEA DA ALHÓNDIGABILBAO.**
SI NECESITAS ALGUNA AYUDA TÉCNICA QUE TE FACILITE EL ACCESO A NUESTRAS ACTIVIDADES, O PARA DISFRUTAR DE LA ACTIVIDAD CON MEJOR CAPACIDAD AUDITIVA, PÍDENOSLO. ALHÓNDIGABILBAO ES UN ESPACIO ACCESIBLE PARA TODAS LAS PERSONAS.

---

**ORDUTEGIA** HORARIO
**ASTELEHENETIK OSTEGUNERA** DE LUNES A JUEVES **7:00 - 23:00**
**OSTIRALA** VIERNES **7:00 - 24:00**
**LARUNBATA** SÁBADO **8:30 - 24:00**
**IGANDEETA** DOMINGO **8:30 - 23:00**

---

**www.alhondigabilbao.com**
info@alhondigabilbao.com
PLAZA ARRIQUIBAR, 4
944 014 014

**Liburuxka hau eraman baino lehen, ingurumenarekin duzun erantzukizun eta konpromisoan pentsatu. Ez baduzu liburuxka erabiltzeko asmorik, utzi beste pertsonek ikusi dezaten.**
Antes de llevarte este folleto, piensa en tu responsabilidad y compromiso con el medioambiente. Si no lo vas a usar, déjalo para que otras personas puedan verlo.

**Ezinbestekoa bada, AlhondigaBilbao-k programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko eskubidea erreserbatuta du; horrelakorik gertatzen bada, aldez aurretik bere web-orrian jakinaraziko du: www.alhondigabilbao.com**
En caso de fuerza mayor, AlhóndigaBilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en su web www.alhondigabilbao.com

hó
AlhóndigaBilbao